


LAZKAOKO PLAZA

UDAL ALDIZKARIA

LZKO

12

2011ko iraila



LAZKAOKO UDALA



Aro berri bat Udalean

- Azeari Andonegi alkateari elkarrizketa.
- Lazkaoko historia, iruditan herritarren eskutik.
- Esparruko jira: tradizioaren berreskurapena.

Udal berria



Lazkaoko Udal Antolaketaren egitura osatuta dago jada 2011-2015 legealdirako. Joan den uztailean eztabaidatu, adostu eta bozkatu ziren datozen lau urteetara begira Udalaren kudeaketa eta

Lazkaoko Udalaren antolaketa politikoa

- 1** Alkatea: Azeari Andonegi (Bildu)
- 2** Lehen alkateordea: Kepa Goenaga (Bildu)
- 3** 2. alkateordea: Haizea Mendia (Bildu)
- 4** 3. alkateordea: Inazio Estensoro (EAJ-PNV)
- 5** 4. alkateordea: Andoitz Garmendia (Bildu)

Zinegotziak:

- 6** Maialen Aldasoro (Bildu)
- 7** Arantxa Bengoa (Bildu)
- 8** Urtzi Iruin (Bildu)
- 9** Patxi Albisu (EAJ-PNV)

- 10** Ane Irastortza (EAJ-PNV)
- 11** Milagros Madrazo (EAJ-PNV)
- 12** Felix Urkola (EAJ-PNV)
- 13** Juan Manuel Serna (EE-PSE)

ZER DIOTE BATZORDEBURUEK?



Urtzi Iruin

Partehartzea eta komunikazioa:

"Helburua udaleko ateak herriari zabaltzea izaki, lehen pausu bezala batzordeetan herritarrek ahalik eta parte-hartze handiena izateko gonbitea luzatu dugu".

"Egun dauden komunikazio baliabideak eguneratzen, aktibatzen eta gerturatzen saiatuko gara".

Gazteria

"Gazteen arteko harreman gabeziak ikusita, parte-hartzea bultzatu eta sendotzen saiatuko gara. Gazteek antolatutako ekintzak bultzatzen ahaleginduko gara".



Kepa Goenaga

Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa:

"Momentu gogorak tokatu behar zaizkigu eta gure gestioa diru publikoa izanik, era zuzen eta garden batean kudeatuko dugu".



Andoitz Garmendia

Ingurumena eta lehen sektorea:

"Lanketa berezirik ez dugu aurkitu eta ingurumenari eta lehen sektoreari bultzada bat emateko asmoa dugu. Oso pozik nago izan dugun harrerarekin eta lan taldearekin".

herritarren eskura



lan metodologia baldintzatzen dituzten gai garrantzitsuenak. Udalaren nahia da herritarrek udal informazio guztia eskura izatea. Hala, hona hemen ez-ohiko batzaraldi hartan onartutako zenbait puntu:

Guztira 9 Batzorde informatzaile ditu udal berriak:

- 1.- Parte-hartzea, Komunikazioa eta Gazteria: Urtzi Iruin
- 2.- Ogasuna, Pertsonala eta Antolaketa: Kepa Goenaga
- 3.- Hirigintza: Azeari Andonegi

- 4.- Gizarte Zerbitzuak eta Inmigrazioa: Maialen Aldasoro
- 5.- Ingurugiroa eta Lehen sektorea: Andoitz Garmendia
- 6.- Berdintasuna eta Emakumea: Maialen Aldasoro
- 7.- Kirola: Haizea Mendia
- 8.- Hezkuntza, Euskara eta Zerbitzuen sektorea: Arantza Bengoa
- 9.- Kultura eta Festak: Haizea Mendia

Talde politiko eta bozeramaileak:

- Bildu: Haizea Mendia Iztueta
- EAJ: Inazio Estensoro Eskisabel
- PSE-EE: Juan Manuel Serna Portugal



Hirigintza:

"Dimentsio handiko proiektu berri asko aurkitu ditugu, baina garbi dugu gure garapena beste era batekoa nahiko genukeela".

Azeari Andonegi



Hezkuntza, Euskara eta Zerbitzu Sektorea

"Euskararen erabilpena egunerokotasunean bultzatzea izango da gure erronka. Hezkuntza mailan norberarekiko eta inguruarekiko errespetua izatearen garrantzia azpimarratu nahi dugu. Merkatariekin ere harremanetan jarri gara".

Arantza Bengoa



Ongizatea eta Migrazioa:

"Dauden lan talde eta teknikariek egiten ari diren lanari jarraipena eman nahi diogu, lazkaotarren ongizatea hobetu nahirik".

Maialen Aldasoro

Berdintasuna eta Emakumea

"Benetako berdintasuna lortzea, gizon/emakume rola alde batera utziz, pertsonari berari garrantzia emanez".



Kultura eta Festak:

"Euskal kultura kutsuko ekintza kulturalak urtean zehar duten presentzia zabaltzea. Festak herritik eta herriarentzat izatea dugu helburu. Horretarako festa aurreko bileretara herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu".

Haizea Mendia

Kirola:

"Kirola osasuntsua izaki, adin ezberdinetara iritsi nahi dugu. Kiroldegia handitzen ari den bitartean, kirol eskaintza areagotuko da, kirol aniztasuna bultzatuz".

● AZEARI ANDONEGI. Lazkaoko alkatea

“Buru-belarri egingo o ongizatea berri

DESDE SU NOMBRAMIENTO COMO NUEVO ALCALDE DE LAZKAO, AZEARI ANDONEGI NO HA PARADO DE TRABAJAR PARA CONOCER CUANTO ANTES EL FUNCIONAMIENTO Y LOS ENTRESIJOS DEL AYUNTAMIENTO. EN LA SIGUIENTE ENTREVISTA, EL ALCALDE DESVELA LAS LÍNEAS DE TRABAJO DEL NUEVO GOBIERNO MUNICIPAL, AL TIEMPO QUE SE MUESTRA “ILUSIONADO” Y CON “MUCHAS GANAS” DE TRABAJAR POR Y PARA LOS LAZKAOTARRAS.

Zenbait hilabete pasa dira jada maiatzaren 22ko udal hauteskundeen geroztik. Balantzea positiboa da?

Beno, gutxinaka ari gara egoera berrira moldatzen. Udaletxe batek mila lan desberdin ditu eta lan horiei neurria hartzen nahiko denbora pasatzen da. Asko daukagu oraindik ikasteko.

Hauteskunde horietan Bilduk 13 zinegotzietatik 7 lortu zituen. Datu horrek lazkaotarrek zuten aldaketa nahia islatzen duela uste duzu?

Egoera aldaketa garbi bat egon da. Nire ustez aldaketa horiek osasuntsuak dira. Herriak gure aldeko apustua egin du eta orain eurentzat ari gara buru-belarri lanean. Jendearen indarra eta babesa medio, uste dut bultzada berri bat emateko gaitasunarekin gatozela. Etapa berri bati ekin nahi diogu, odol berriak zirkulatzeko aukera izan dezan. Proiektu berriekin gatoz, herriaren beste era bateko ikuspegi batekin: sozialagoa, parte hartzaileagoa, gardena... gure erronka da, ikuspegi hori oinarri, aurreko legealdiko ikuspuntuari buelta bat ematea.

Eta zein urrats emango dituzue herriak eskatzen duen aldaketa hori gauzatzeko? Zeintzuk dira 2011-2015 legealdirako lan-ildo nagusiak?

Gure lehenengo betebeharra Udalaren ezagutza da. Azken finean, bere eraketa ezagutu behar dugu, barruko sustraiak nola bideratzen diren ikusi, hots, barneko funtzionamendua ezagutu. Ikasi ondoren, horren harira erabakiak hartzen joango gara, erabaki horiek herrirantz eraman eta herriari erabaki horien partaide eginez. Proiektu handiak egin ordez, proiektu txikien aldekoak gara. Jasangarria den herria nahi dugu: bigarren eskuko etxe hutsak berpiztu, e.a. Oraindik ikasten ari gara, baina egunerokotasunean eta kasuan kasu sortzen diren egitasmoei irtenbidea emateko ildoak bide sozialetik joko du, hori baita gure funtsa. Esaterako, krisi garaian gizarteari zuhurtasuna eskatzen dioten eragile politikoek euren burua jarri behar dute eredutzat. Lazkaoko Udalaren kasuan, soldatak eta diru-iturriak jaitsi ditu, egungo krisi garaietara egokituz.

Alkate berria zaitugu. Herritarren harrera zer moduzkoa izan da?

Ona izan da. Ni behintzat gustura nago, jendeak geratzen nau, gure proiektuarekin itxaropentsu daudela esaten didate. Baina oraindik gauza asko dago egiteke. Oinak lurrean edukita, espero dut hartuko ditugun erabakiekin herritarrak gustura egotea.

Lazkao etorkizunean irudikatze eskatuz gero, zer ikusten duzu?

Lehenik eta behin, herritarrek hitza edukiko duten Lazkao izatea nahi dut. Nire ikuspegitik, herri polit bat, hazkunde edukitzea beharrezkoa duena, ona baita herriarentzat... baina neurrian egindako hazkunde bat izan behar du. Naturarekin eta gure ondarearekin errespetua duen herri bat. Berde koloreko herri bat izaten jarraitzea nahi dugu, atsegina, garbia, euskalduna, soziala...

Udala herritarrei gerturatzeko helburu horretan, azalduko al zenuke nolako den zure eguneroko lana?

Orain lanean erabat murgilduta nago. Niretzat esperientzia berria izaki, asko daukat ikasteko; hasierako hilabeteotan ahalik eta azkarren eta ongien ikastea funtsezkoa da. Horregatik udalari eskaintzen diot denbora ia guztia. Ez dut asti handirik hartzen, esaterako, umeekin egoteko, ez afizio pertsonaletarako, ezta lagunekin egoteko ere. Dena den, egoera berriari neurria hartzen goazen heinean gauzak normalizatzen joango direla uste dut.

Udaleko batzorde informatzaileak eratu dira jada. Nobedaderik ba al da aurreko legaldiarekin alderatuta?

Batzordeak eratu aurretik, beste eragile politikoekin hitz egin genuen. Gure apustua gehienbat emakumearen arloa Ongizate sailetik bereiztea zen; emakumearen gaia behar bezala uztartu eta garatzeko batzorde propioa sortzea erabaki genuen. Bestetik, orain arte Gaztedia eta Kirola bateratuta zeuden. Orain berriz, Gaztedia, Komunikazioa eta Parte hartzea batzorde berean sartu ditugu. Hala, kirolak eta kulturak batzorde propioa izango dute.

“Dugu lan lazkaotarren matze aldera”

Politikan eskarmenturik ba al zenuen aurretik? Zerk bultzatu zintuen mundu horretan sartzera?

Politiko bezala ez naiz inoiz aritu. Politika inguruko lanik egin gabeko jendea gara. Aukera suertatu zen eta aukera horri eusteko garaia zela ikusi genuen; proiektu berri honetan lanean hasi eta azkenean, alternatiba bat eskaintzeko asmoz, gaur egungo egoera honi beste era bateko irtenbideak emateko ilusioak eta gogoak bultzatzuta sartu ginen hontan. Beti jarraitu izan dut politika mundua, gure gizartean garrantzia handia duen gaia baita. Egun dagoen demokrazia falta edo gabezi hori bete beharra dagoela uste dut. Gure taldearen izenak dioten bezala, horren aldeko apustua egiteko bildu gara, euskaldunen arteko bilgune bat sortu dugu, guztion artean nahi dugunaren alde egiteko.

Zuretzat esperientzia berria izaki, etxekoan laguntza eta babesa garrantzitsua izango da... Aholkurik eman al dizue zure gertuekoenak?

Batik bat esan didate niretzat ere denbora hartzeko. Gauzak oso garbi ditut, argi daukat naizen bezalakoa izango naizela bai kalean eta bai udalean. Beti saiatzen naiz nire bizitzan gardena izaten eta pentsatzen dudana esaten. Arrazoi ez dudanean ere entzuten dudala usten dut, eta arrazoitzen dut. Orain eginkizun inportantea daukagu: herritarrentzat garrantzitsuak diren erabakiak hartu behar dira eta horien inguruko azterketa egin behar da, erabakiak ezin dira-eta modu arinean hartu; denbora asko kentzen du, noski, baina prest nago behar den denbora herritarrei eskaintzeko, dedikazio osoz.

San Miguel jaiak ate joka ditugu. Alkate gisa, zure lehenak izango dira eurak. Ilusiorik ez zaizu faltako, ez?

San Migelak herritarrentzat San Prudentzioak baino bereziagoak dira. Dena den, horren aurretik nabarmendu behar da Esparruko Jira ere egingo dela, jai hori berreskuratze aldera giza talde bat ari da lan handia egiten, eta Udalak ere tradizioz jositako jai horri bultzadatxo bat eman nahi dio. Bestetik, San Migelak herritarrentzat egindako festak dira, giro herrikoiaz gozatzeko aukera ezin hobea izan dugu, beraz.

“Somos partidarios de proyectos pequeños que vayan acorde con Lazkao”



“En el futuro veo un pueblo que respeta su patrimonio y naturaleza; un municipio agradable, limpio, euskaldun y social”

Lazkaotarrak kirol

KEMENA, IRMOTASUNA, ESFORTZUA, SAKRIFIZIOA, KONSTANTZIA EDOTA DEDIKAZIOA. HAINBAT ETA HAINBAT KALIFIKATZAILE ERABIL DAITEZKE KIROLARIAK ETA EUREK EGITEN DUTEN LANA DESKRIBATZEKO. KIROLAREKIKO ZALETASUNA BETIDANIK EGON DA PIL-PILEAN LAZKAON. HERRIAN ETA HERRITIK KANPO OSPEA ETA ENTZUTE HANDIA LORTU DUTEN LAZKAOTARRAK ERE UGARIAK DIRA. LAZKAOKO UDALAK KIROLAREN ALDEKO APUSTU GARBIA EGITEN DU, HERRIKO KIROLARIEN ETORKIZUNA BASBETU ETA BERMATZEKO, BESTEAK BESTE. UXUE GARMENDIA, GARI BRAVO ETA ANGEL VAZQUEZEK BEREN ESPERIENTZIA AZALTZEN DUTE, KONSTANTZIA, ILUSIOA ETA LANA MEDIO KIROLAREN GAILURRERA IRITS DAITEKEELA ERAKUTSIZ.

Uxue Garmendia

Errealeko jokalaria

Uxue Garmendia lazkaotarra orain gutxi hasi da Errealeko nesken taldean jolasten. "Ikaragarritzko sorpresa hartu nuen aukeratua izan nintzela jakin nuenean. Probatan ur-tarriralen hasieratik nengibilen, bost bat hilabetez Zubietara joaten nintzen asteazkenero bertan entrenatzera. Ez nuen esperantza handirik egia esan, maila oso altua baitago. Baina uztail hasieran dei hura jaso nuenean, nire amets bat betetzera zihoala ohartu nintzen". 19 urteko kirolari lazkaotarra betidanik izan da kirolzale amorratua, txikitatik etxean mamitu baitu zaletasun hori: "Eskolarretan hainbat kirol egiten nituen, txirrindularitzan ere jardun nuen. Baina futbola da gehien erakarri nauen kirola, aita ere mundu horretan ibilitakoa da, zerikusia izan dezake agian. Talde-lana asko gus-tatzen zait, eta futboleko hori ezinbestekoa da". Uxue Garmendiarentzat, hasi berri den denboraldia izango da Errealean ematen duen lehena. Ez da erronka makala, Gasteizen Farmazia ikasketak ari da burutzen eta Donostialdera joan beharko du entrenatzera. "Badakit gogorra izango dela, baina ilusio handia dut. Dena den, Errealera saltoa handia da eta jakin badakit lan handia egin beharko dudala taldean leku bat izateko", dio. Garmendiak ez du ahaztuko, dena den, Lazkaoko Futbol Taldeari esker iritsi dela dagoen mailara. "Herrian gero eta neska gehiago ari dira kirolean. Esaterako, aurtun jubenilen futbol taldea sortu da, eta taldea Gipuzkoako Txapeldun izan da".

"Errealetik deitu zidatenean, nire ametsetako bat bete zen"



laren gailurrean

Gari Bravo

Txirrindularia, 2011ko Volta Portugalean gazterik onena.

Gari Bravo dugu esfortzuak ematen dituen fruituaren adibide adierazgarri bat. Urte betez amateur mailan eman ostean, Caja Rural-eko lehen taldean jardun du azken bi urteotan. "Profesional maila beste mundu bat da, pedalei eragiteaz gain, atzetik laguntza handia dago, bai antolaketa eta baita prestakuntza aldetik ere". 2011 urte gozoa izan da Bravorentzat. *Volta Portugal* ospetsuaren azken edizioan gazte onenaren saria eman zioten, eta espainiarren artean lehen postuetan sailkatu zen. "Egia esan beldurrarekin joan nintzen froga hartara, 11 egunetan oso erraza baita behera etortzea. Baina zorionez nahiko erregularra izan nintzen, taldekideek ere asko lagundu zidaten. Gazte onenaren mailota jantzi nuenean ikaragarritzko indarra eman zidan, lanean jarraitzeko motibazio galanta izan zen". Orain gutxi *Tour del Porvenir* derit-

**"Irabazlearen mailota
jazteak indarra eta
lanean jarraitzeko
motibazioa eman
zizkidan"**

zon proban parte hartzeko gonbitea jaso du, gazteei zuzendutako Frantziako Tourra, alegia. Hura izan da aurtengo azken txapelketa. "Denboraldi berrian hobetzen jarraitzeko asmoa dut, talde ederra daukagu eta ea gauzak ongi joaten diren". Bere ibilbidean zehar, funtsezkoa izan da etxekoen babesa; "gurasoei txirrindularitza asko gustatzen zaie, ni neu ere 8-10 urte nituela hasi nitzen bizikletarekin. Gogoan dut San Miguel arte joaten ginela. Nekatuta iristen nintzen eta ez nuen indarririk jaisteko baina aitak jaistera animatzen ninduen! Beharrezkoa da etxekoen babesa, kirol gogorra baita".



Angel Vazquez

Txirrindularia, Perico Delgado lasterketan garaile.

**"Valverderekin
helmugara iristea
oso berezia izan
zen
niretzat"**

Angel Vazquezek 3 urte eman zituen profesional mailan. Urte gehiago gustura emango zituela aitortzen du, baina maila horri eustea "zaila" dela dio. Orain afizionatu gisa dihardu, argi baitauka txirrindularitza bere bizitzaren zati garrantzitsua dela. "Gaur egun martxa zikloturistetan eta beste zenbait probatan hartzen dut parte. Ezin dut txirrindularitza alde batera utzi, izan ere, txikitatik gustatu izan zait kirol hori. Normalean astean sei egunetan entrenatzen dut. Askotan zaila da lana eta beste zeregin batzuk direla eta, baina zerbait gustukoa duzunean denbora edonondik ateratzen duzu". Joan den abuztuan Segovian egin zen Perico Delgado lasterketan garaipena lortu zuen: "Oso esperientzia ederra izan zen. 2.100 parte hartzaile izan ginen guztira, eta Valverderekin batera helmugara iristea berezia izan zen niretzat", dio txirrindulari lazkaotarrak. Lazkao inguruko paisaiak ditu entrenamendu gune, eta bereziki Urkillagako igoera du Vazquezek gustuko. "Inguru hartatik txirrinduan ibiltzea oso gustuko dut, bista ederrak daude bertatik". Txirrindularitzaren zale amorratua izan arren, Anjel Vazquezek baditu beste ardurak batzuk; herriari eta herritarrei laguntzeko desio horretan, azken udal hauteskundeetan EAJ-PNV alderdiaren zerrendan parte hartu zuen. "Nire nahia ez da politikagintzan sartzea, herriko gauzetan laguntzea baizik, beti izan dut lazkaotarrei laguntzeko interes handia".



El Ayuntamiento contrató a siete operarios para facilitar su inserción laboral

El Gobierno Vasco creó ayudas para contratar a personal para realizar distintos trabajos. Estos contratos tienen una duración máxima de 6 meses y están destinados a personas que no perciben la prestación por desempleo. Cinco de los operarios contratados por el Consistorio acabaron el 30 de julio y los dos restantes lo han hecho el 20 de septiembre. Los trabajos realizados han sido variados: se han reparado aceras y arquetas en diversos barrios: Hirigoien, Areso, Iturgaitzaga, Ibabe, paredes del bulder etc, y se han pintado los bancos, las farolas, pivotes y pasos de cebra de Hirigoien, Gurutze, Zubizkitza, Elosegi etc. Han sido operarios de Lazkao, y la experiencia ha sido muy positiva para el Ayuntamiento.

Fidel Etxeko kaltetuentzat 17.939€ bildu dira guztira

2011ko urriaren 23an Lazkaoko Fidel Etxeren sutea gertatu zen. Sutea nahiko larria izan zen. Hori dela eta, azaroaren 3an etxeko bizilagunen alde dirua lortzeko bilera egin zen, Lazkaoko herritar, kultura eta kirol taldeen artean ideia desberdinak mahai gainean jarriaz. Jende ugari bildu zen eta hainbat ideia azaldu ziren dirua biltzeko, hainbat ekimen antolatu zirelarik: banketxe desberdinetan kontu korrenteak ireki ziren, herritarren banakako ingreso ugari egin zelarik; Jon Barreros eta Igor Barreroren kontzertua; Santa Zeziliako kontzertua; Areriako hainbat ekitaldi; Kantaka eta Xanbe kontzertua; merkatarien saskiaren errifak; elizatako elizkizunetan jasotako dirua; Lazkaotxiki musika eskolako kontzertua, edota Domarda elkarteak festetan izandako inizatiba, besteak beste. Herritarrek eta Udalak bultzatutako ekimen guztiei esker, guztira 17.939,31€ bildu dira eta diru hori Fidel Etxean kaltetutako bi familien artean banatu da. Lerro hauen bitartez, Lazkaoko Udalak eskerrak eman nahi dizkie modu batera edo bestera parte hartu duten lazkaotar guztiei.

El último reparto del banco de alimentos ayudó a una veintena de familias

Dentro de la iniciativa que se hace desde 2010, a finales de julio el banco de alimentos repartió alimentos a unas 20 familias, con la ayuda de un grupo de voluntarios. A lo largo del año, dentro del marco de este programa, se efectúan tres o cuatro repartos de comida. En caso de necesidad, las ayudas se solicitan en el departamento de Servicio Sociales del Ayuntamiento.



Euskarazko eskoletara joan diren lazkaotarrek diru-laguntza jasoko dute

Euskarazko eskoletara joan diren lazkaotarrek Lazkaoko Udaletik diru-laguntza jaso ahal izango dute. Diru-laguntza hori jaso ahal izateko zenbait baldintza bete behar dira: Lazkaon erroldatuta izatea, langabezian egotea, eskoletara %80ko gutxieneko asistentzia izatea eta euskara ikasteko beste inolako erakundetik diru-

laguntzarik ez jasotzea.

Baldintza horiek betez gero, eskoletako matrikula kostuaren %50a jasoko da eta eskaera udaletxean bertan egin behar da irailaren 30a baino lehen. Informazio gehiagorako deitu udaletxera (943088080).

Tras la demolición de la casa de Elosegi 11 y los baños adyacentes, la ciudadanía tiene otros lavabos públicos disponibles



La casa ubicada en Elosegi 11 y los baños públicos adyacentes a ella fueron derribados a finales de agosto. En ese solar se construirá un edificio de 8 viviendas. A pesar de la supresión de dichos lavabos públicos, los ubicados en el ayuntamiento, en el polideportivo y los recientemente instalados en el parque Jose Lasa están disponibles para la ciudadanía.

Lazkao eta Beasain lotzen dituen bidegorri sarea, osatuta

Lazkao eta Beasain arteko bidegorri sareko lanak amaitu dira. 1.250 metro luzeko bidegorria bi fasetan burutu da: lehenengo fasean, Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatutakoa, Beneditarretatik hasi eta Senpereko Agauntza gaineko zubirarteko zatia egin da, 950 m-ko luzera duena. Bigarren fasea Lazkaoko Udalak ordaindu du eta Elosegiko zubitik hasi eta Beneditarretartan amaitzen da 300 metroko bidegorria.

Mugikortasun Astean joku ugari izango dira lazkaotar guztientzat

“Bidaia modu eraginkorrean: hobetu zure mugikortasuna” lemapean ekingo zaio 2011ko Mugikortasun Iraunkorraren asteari. Irailaren 19tik 23ra kalea jolasleku bihurtuko da, egunero arratsaldeko 16:30etatik 18:30ra. Guztiek, haur, gazte zein helduek ohitura jasangarriak barnertzeko aukera paregabea eskaintzen du ekimenak. Animatu eta parte hartu!!

Gogoratzen al duzu?

Argazkiak: Gregorio Konde



Manuel Enea



Maizpide

Gogoratzen duzu? atal honetan hilerok Lazkaoren historia islatzen duten argazkiak argitaratuko ditugu. Herritarrei, arrazoi bat edo beste medio, oroitzapen ederrak ekartzen dizkien argazkiak plazaratzeko aukera eskaini nahi diegu orri honen bitartez.

**Lazkao guztiok osatzen dugulako...
Animatu eta bidali antzinako argazki bat!**

**Argazkia bidaltzeko helbidea:
kultura@lazkao.net**



Lazkaotarren kemenez,

ESPARRUKO JIRA NACIÓ EN 1941, GRACIAS AL ENTUSIASMO Y GANAS DE ORGANIZAR UNAS FIESTAS GENUINAS POR PARTE DE LOS LAZKAOTARRAS DE AQUEL TIEMPO. TRAS AÑOS DE MUCHO SUFRIMIENTO –DEBIDO A LAS PROHIBICIONES QUE LLEGARON EN 1946– ESTE EVENTO, SIN DUDA HISTÓRICO PARA EL MUNICIPIO, HA SABIDO SOBREVIVIR Y LUCHAR CONTRA LAS ADVERSIDADES. SEGURAMENTE MUCHOS NO CONOZCAN LA HISTORIA DE *ESPARRUKO JIRA*, UNA FIESTA POPULAR QUE CONSISTE EN SUBIR HASTA LA PUNTA DEL ESPARRU ACOMPAÑADOS DE DANZAS, BAILES, BUEN AMBIENTE Y, POR SUPUESTO, BUENOS ALIMENTOS. EL PRÓXIMO 18 DE SEPTIEMBRE LOS LAZKAOTARRAS TENDRÁN LA OPORTUNIDAD DE VIVIR, DISFRUTAR Y AFERRARSE A UNA TRADICIÓN QUE SIGUE EN PIE GRACIAS AL EMPEÑO Y TESÓN DE NUESTROS ANTEPASADOS.

1941 ean sortu zen Lazkaoko festa honek urte latzak pasa izan ditu, baina gaur egun arte irautea lortu du. Lazkaotarrok urtez urte giro ederrean, mimoz prestatutako jaiak izan da eta lana gogoz egiten delako irauten du festak. Hasieran herrian bertan, Zelaian (gaur egun Lazkao Txiki Zelaia den horretan) egiten



Esparruko jirak bizirik dirau

zen festa, abuztuaren 15ean: trikitixa, dantza, zinta karrera... 1946an debekuak etorri ziren eta herritarrak, festa-ekin jarraitu nahirik, Esparru mendian antolatzea erabaki zuten. Erabaki hori hartuta, lehenengo saioa antolatu eta Guardia Zibilarekin iskanbilak izan ziren; herritarrak mendian ihesi ibili ondoren, Olaberrian amaitu behar izan zuten festa.

Geroztik, festa herrikoi honek, hainbat gora-behera eta une zail tartean, denboran irautea lortu du. Idi eta gurdiekin, hainbatetan lokatzetan trabatu eta ezinean ibili arren, Ballesta iturrian atsedena hartu, ogitartekoa jan eta bazkariako eta festarako behar ziren tresnak eramaten zituzten. Egun pasa ederrak bizi izan dituzte lazkaotarrek urtez urte: soinua, dantza, kantua, jolasa... umorez gainezka, egun borobil askoez gozatu dute herritarrek Esparrun.

Duela urte batzuk egun egokiago baten bila hasi eta festa, abuztutik irailera, San Migel aurreko asteburura pasatzea erabaki zen. Orain jan-edanak eta beharrezko tresnak traktorean igo eta herritarrak oinez igotzen dira, Lazkao eta Ataun mugatzen dituen Esparru gainera.

Egitaraua ere aberastuz joan da urtetik urtera, eta egun pertsona ezinduek zein adinekoek joateko aukera dute. Horra, beraz, aurtengoak dakarrena:

Irailak 17, larunbata:
19:00etan buruhandiak eta txistulariak.

Irailak 18, igandea:
09:00etan igoerako deiaren suziria.
12:00etan, Esparru tontorrean ikurriña jartzea eta aureskua.
12:30ean, jolasak eta herri kirolak.
14:30ean, bazkaria.
18:00etan, dena txukundu eta herrira itzulera.



Patxi Madariaga

"Auzolanean antolatutako jai bat da. Nahiz eta jendea gozatzerako joaten den, denek botatzen dute esku bat, haurren jokoak prestatzen, mahaiak jartzen, bazkaria prestatzen, errifak saltzen... Jende artean sortzen den saltsa eta giroa ezin hobeak izaten dira. Goiza, ibilaldia egin ondoren, sagardo freskoa edanez hasten dut. Hori bai, eguna luzea izaten da eta edariari neurria hartzen diot, bestela jaitsiera arriskutsua izaten da".



Sara Villanueva

"Guretzat egun seinatua da familian joateko. Batzuetan ikastolako lagunekin ere joan izan gara. Umeek ederki pasatzen dute jokoetan; bazkaldu ondoren, mendian txabolak egiten, txirristak, lokatzarekin jolasean, e.a. ibiltzen dira adin desberdinetako umeen artean. Eguna amaitze aldera

jaisterakoan Izarbasoan geratzen gara eta bidean abesti batzuk ere kantatzen ditugu noizbehinka".



Andoni Lasa

"Gogoan dut dantza txapelketa antolatzen zen garai hura. Etxean badituzte bi txapel Esparruko jiran lortuak. Gure sendiak ohitura du bazkari bukaeran erroskilla zozketa egiteko eta dagoen giroari ukitu berezia ematen dio. Urte askoan joan naiz eta festa ederra dela esango nuke".



Pedro Solis

"Son unas fiestas populares en las que nos lo pasamos de cine. La gente colabora y todos echan una mano. La organización Amalur, junto con los colaboradores, invitamos al pueblo a subir y disfrutar de la fiesta. Tratamos con gente que durante el año no coincidimos mucho".



Antonio Irastortza

"Indarrak eta harremanak tarteko, herri bazkari goxoxoa eta eguna errematatze, mendia txukuntxun utzi eta seiak aldera beherantz abiatzea. Izarbasoko geldialdia egin tartean, bertakoak zain izaten baititugu, ardoa eskainiz eguneko pasarteak elkarrekin trukatzeko".



Iñaki Insausti "Piru"

"Gaztetatik joan izan gara egunean bertan. Azken lau bat urteetan, astoekin bezperatik gaua bertan pasatzen dugu. Jaia den egunean, astoekin tontorrera igotzen saiatzen gara. Lagun artean astebukaera bikain pasatzen dugu, gaupasa dotore batekin".

AGENDA

IRAILA-URRIA

17, larunbata:
Kultur Etxeko sotoan gaztelekuaren irekitzea eta denboraldi haserako jaia
19:00etan Esparruko jira dela eta, buruhandiak txistulariekin.

18, igandea (Esparruko jira Eguna):
9:00etan Esparru mendira jira, egunpasaren irteera.

19tik 23ra (Mugikortasun Astea):
Egunero arratsaldeko **16,30etatik 18:30**etara. herriko plaza eta inguruetan:

19, astelehena:
Kirol desberdinak: street basket, bolea-bolea, badmintona, pilota.

20, asteartea:
"Zatoz irrizatzeraz" jolasak, ibilaldia, dena patin gainean.

21, asteazkena:
"Txirri duaz gozatzera": Gynkana eta jolasak eta 18.30ean txirri duaz ibilaldia herritik zehaz.

22, osteguna:
"Autorik gabeko eguna": jolasak kalean ludotekaren eskutik.

23, ostirala:
Jolasak kalean: Gaztelekuaren eskutik futbolina, mahai tenisa, paleta, mahai jolasak, kanikak, txapak, tailerrak....

24, larunbata:
19:00etan XIX. Sagardo dastaketa, taloak eta trikitilariak.

23:00etan Lazkaoko gazte taldeen musika emanaldia. Limbo Bridge eta Konbo Soyuz.

25, igandea:
10:00etan Eskola umeen lasterketa.
11:00etan Josetxo Imazen oroimenezko XI. lasterketa hasiera eta amaiera Lazkaoko plazan.

17:30ean Gipuzkoako bertso txapelketako final zortzirenetako saioa Areria kultur gunean.

28, asteazkena:
19:00etan Buruhandiak Antzar Gazteak txistulariekin.

29, osteguna (San Migel eguna):
11:30 - 13:00 / 16:00 - 19:00 Haurrentzako puzgarriak.
12:00etan Jubilatuen aldeko Meza Nagusia San Migel parrokan, Oin Arin dantza taldeko dantzariak harrera egingo die jubilatuei.

12:00etan San Miletako eskolaumeen arteko pilota txapelketa.
Samiletako pelota txapelketaren azkenak Plazako pilotalekuan

19:00etan kantu jira Gerritik abiatuta.

20:00-21:00 Drindots musika taldearen emanaldia.

21:00etan Afari herrikoia Plazako pilotalekuan.

23:00-01:30 Afal ondoren berriro ere Drindots taldearen emanaldia.

Urriak 9, igandea (Dantzari Txiki Eguna):

11:00etan Dantzariaren desfilea herrian zehar.

13:00etan Dantzariaren alardea herriko Plazan..

17:00etan Patxi Perezekin erromeria Plazan.



LAZKAOTAR guztien esku dago

Lazkaotik kanpo bizi diren herritarrek Lazkaoko Plaza udal aldizkaria bi hilabetero euren etxeetan jaso nahi badute edo, Lazkaon bizi arren, norbaiti ez bazaio iristen, jar dadila harremanetan Udaleko Kultura Sailarekin:



Telefona: 943 08 80 80



Helbide elektronikoa: udala@lazkao.net